16/07/2020 09:18:56
Aitor Elexpuru Egañ a-Berako Alkatea
(Originala digitalki sinatua / Firmado digitalmente)

16/07/2020 09:15:45
MIGUEL J. BELARRA TELLECHEA-IDAZKARIA/SECRETARIO
(Originala digitalki sinatua / Firmado digitalmente)

# 2020ko UZTAILAREN 15eko OSOKO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2020-07-15.
Hasiera ordua: 19:35.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:
EH BILDU
M. Aranzazu Zubieta Ochoteco
Jose Esteban Aguirre Zubieta
Estibaliz Pinacho Olaciregui
Julen Errandonea Martin
Josu Iratzoki Agirre
HERRIRAKO
German Castillo Lazcanotegui
Jose Antonio Oyarzabal Iribas
Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:
Maialen Chantre Irazoki
Raquel Quiroga Tapia

ALKATEA (Bilkurako buru):
Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel Jose Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIAK (behar bezala egindako deialdiaren Gai Zerrendan sartu zirenak):

**1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.**

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari (2020/06/17). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartzen da akta.

**2. 9. POLIGONOKO 422. PARTZELAKO XEHETASUN AZTERLANA (KAXERNA KARRIKA 22 —10. PARTZELA, SK2 SEKTOREA, UE9—). BEHIN BETIKO ONESPENA.**

# ACTA DE PLENO DE 15 DE JULIO DE 2020.

Lugar: Casa Consistorial de Bera.
Día: 15-07-2020.
Hora comienzo: 19:35.
Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

ASISTEN:
EH BILDU
Mª Aranzazu Zubieta Ochoteco
José Esteban Aguirre Zubieta
Estibaliz Pinacho Olaciregui
Julen Errandonea Martin
Josu Iratzoki Agirre
HERRIRAKO
Germán Castillo Lazcanotegui
José Antonio Oyarzabal Iribas
Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre

AUSENCIAS JUSTIFICADAS:
Maialen Chantre Irazoki
Raquel Quiroga Tapia

ALCALDE (preside la sesión):
Aitor Elexpuru Egaña

SECRETARIO: Miguel José Belarra Tellechea, levanta acta del acto.

ASUNTOS TRATADOS (incluidos en el Orden del Día de la convocatoria realizada al efecto):

**1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.**

Pregunta el Alcalde si alguno/a de los/las concejales/as desea hacer alguna observación al acta de la sesión anterior (17/06/2020), repartida con la convocatoria. No se ha manifestado ninguna, aprobándose el acta **por unanimidad**.

**2.- ESTUDIO DE DETALLE DE LA PARCELA 422 DEL POLÍGONO 9, KAXERNA KARRIKA 22 (PARCELA 10, SECTOR SK2, UE9). APROBACIÓN DEFINITIVA.**

Ikusirik:

- 9. poligonoko 422. partzelako xehetasun azterlana —Kaxerna Karrika 22 (10. partzela, SK2 sektorea, UE9)—, partzela pribatuaren barruan solairuko gehieneko okupazioa aldatzeko, gehieneko lerrokadurak eta eraikigarritasuna aldatu gabe. Sustatzaileak dira José Esteban Telletxea Fagoaga, Idoia Apezteguia Zozaya, Juan José Barcenilla Plazaola eta Ana María Lanchas Endara. Dokumentua Ander Rodriguez Korta arkitektoak idatzi zuen.

- Nasuvinsak 2020ko martxoaren 23an egindako txosten teknikoa.

- Udal Idazkariak 2020ko apirilaren 2an egindako txosten juridikoa.

Kontuan izanda:

- Agiria hasiera batean onartu zela apirilaren 7ko 72/2020 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez.

- Espedientea jendaurrean jarri zela, iragarkiak argitaratuz NAOn, prentsan eta Iragarki Oholean.

- Espedientea jendaurrean egon zen epealdian ez zela alegaziorik aurkeztu.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 63. eta 74. artikuluekin bat etorriz,

**aho batez** ERABAKITZEN DA:

1. Behin betiko onespena ematea 9. poligonoko 422. partzelako xehetasun azterlanari.

2. Behin betiko onespen hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

3. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileei.

Visto:

- El Estudio de Detalle de la parcela 422 del polígono 9 —Kaxerna Karrika 22 (Parcela 10, Sector SK2, UE9)—, para modificar la ocupación máxima en planta dentro de la parcela privada, sin alterar ni las alineaciones máximas ni la edificabilidad. Los promotores son José Esteban Telletxea Fagoaga, Idoia Apezteguia Zozaya, Juan José Barcenilla Plazaola y Ana María Lanchas Endara. El documento está redactado por Ander Rodriguez Korta, arquitecto.

- El informe técnico emitido por Nasuvinsa el 23 de marzo de 2020.

- El informe jurídico emitido por Secretaría municipal el 2 de abril de 2020.

Teniendo en cuenta que:

- El documento se aprobó inicialmente por Resolución de Alcaldía 72/2020, de 7 de abril.

- El expediente se sometió a exposición pública mediante publicación de anuncios en el BON, prensa y Tablón de Anuncios.

- No se presentaron alegaciones durante el periodo de exposición pública.

De conformidad con lo establecido por los artículos 63 y 74 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, que aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo,

**por unanimidad** SE ACUERDA:

1.- Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle de la parcela 422 del polígono 9.

2.- Publicar esta aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Navarra.

3.- Notificar este acuerdo a las personas

promotoras.

4. Erabaki hau, onartutako agiriarekin eta emandako txosten teknikoekin batera, Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari helaraztea, gehienez ere 10 eguneko epean.

4.- Trasladar este acuerdo, junto con el documento aprobado y los informes técnicos emitidos, al Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos del Gobierno de Navarra, en el plazo máximo de 10 días.

**3. BERAKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA PLANA.**

Alkateak azaldu du Berako Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana 2018-2022 aldirako. Ondoren, **aho batez** ERABAKITZEN DA:

1. Aipatutako Plana onestea.

2. Planaren jarraipen batzordeko kide hauek izendatzea: alkatea, euskara zinegotzia, udal idazkaria, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko teknikaria eta UEMAko teknikaria.

3. Erabaki hau jakinaraztea UEMAri eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateari.

**3.- PLAN DE USO DEL EUSKERA DEL AYUNTAMIENTO DE BERA.**

El alcalde explica el Plan de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Bera para el periodo 2018-2022, tras lo cual, **por unanimidad** SE ACUERDA:

1.- Aprobar el mencionado Plan.

2.- Nombrar a los siguientes miembros de la comisión de seguimiento del plan: alcalde, concejal de euskera, secretario municipal, técnica de la Mancomunidad de Euskera de Bortziriak y técnica de UEMA.

3.- Notificar el presente acuerdo a UEMA y a la Mancomunidad de Euskera de Bortziriak.

M. Aranzazu Zubieta Ochoteco bilerara sartu egin da.

Mª Aranzazu Zubieta Ochoteco se incorpora a la sesión.

**4. LESAKAKO UDALAREN ERABAKIA, AUZOBERRI AUZOAN PARKE EOLIKO BAT ERAIKITZEKO PROIEKTUARI BURUZKOA.**

Alkateak azaldu du, Nordex Energy Spain S.A. enpresak Lesakan parke eoliko bat jartzeko aurkeztu duen memoriaren aurrean, Udalak proiektuaren aurkako erabakia hartu duela, Lesaka eta Lesakako bizilagunak kontuan hartu gabe eta ingurumenari eta ondare historikoari eragindako kalteak eta bertan bizi diren bizilagunen bizitzari eragindako kalteak kontuan hartu gabe egin delako.

**4.- ACUERDO DEL AYUNTAMIENTO DE LESAKA SOBRE PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE UN PARQUE EÓLICO EN EL BARRIO AUZOBERRI.**

El alcalde explica que, ante la memoria presentada por la empresa Nordex Energy Spain S.A. para la instalación de un parque eólico en Lesaka, su Ayuntamiento ha adoptado acuerdo en contra del proyecto porque se ha hecho sin contar con Lesaka y con los vecinos/as de Lesaka y sin tener en cuenta las afecciones al medio ambiente y al patrimonio histórico, ni los daños que produce a la vida de los vecinos que lo habitan.

Ondoren, **aho batez** ERABAKITZEN DA:

1. Lesakako Udalbatzak 2020ko ekainaren 25ean Auzoberri auzoan parke eoliko bat eraikitzearen aurka hartutako erabakiari atxikitzea.

2. Erabaki hau jakinaraztea Lesakako Udalari.

**5. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.**

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B18/2020 zenbakitik B24/2020 zenbakiraino.

- Ebazpenak: 111/2020 zenbakiko Ebazpenetik (2020/06/15) 133/2020 zenbakiko Ebazpenera bitarte (2020/07/10).

**6. ESKAERAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.**

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 20:35ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

A continuación, **por unanimidad** SE ACUERDA:

1.- Adherirse al acuerdo adoptado por el Pleno del Ayuntamiento de Lesaka el día 25 de junio de 2020, en contra de la construcción de un parque eólico en el Barrio Auzoberri.

2.- Notificar el presente acuerdo al Ayuntamiento de Lesaka.

**5.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.**

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

- Bandos: desde el nº B18/2020 hasta el nº B24/2020.

- Resoluciones: desde la Resolución nº 111/2020 (15/06/2020) hasta la nº 133/2020 (10/07/2020).

**6.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.**

No se formulan.

No habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde levanta la sesión a las 20:35 horas, lo que yo, el Secretario, certifico.

O.E. ALKATEA/ VºBº EL ALCALDE,
Aitor Elexpuru Egaña.

IDAZKARIA/ EL SECRETARIO,
Miguel J. Belarra Tellechea.